

LEGAZPI / Liburutegiko 'Irakurle kanpaina'ren lehiaketako sariak Durangon

LEGAZPI. DV. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, Legazpiko eta Euskadiko liburutegietan burutu zen Irakurle Kanpainaren azken ekitaldia ospatuko da. Bertan banatuko dira Liburua ageri duen erretratua argazki lehiaketako sariak. Lehiaketan Legazpiko hainbat gaztek hartu zuten parte beren argazkiekin, baina ez dira sarituta suertatu.

Hauek izan dira sarituak: irabazlea, Lasarteko Oihane García; bigarrena, Sopelako Izaskun Arizaga; hirugarrena, Bilboko Catalina Cazalla; argazki originalena, Bergarako Kevin Conde. Hiru akzesit ere banatu dira: Gazteizko Nerea Aranegiri, Bilboko Paul Berangeri eta Irungo Iñaki Zabali.